48 13

IBERDROLA DORREA

Bilboko itsasadarretik eta Guggenghein Museotik gertu kokatuta dago. Bizkaiko Foru Aldundiak dorre proiektua sustatu zuen bere bulegoak barne hartzeko, baina oso garestia zenez atzera bota zen eta, bere ordez, 2007 eta 2011. urteen artean, Euskal Herriko dorrerik altuena eraiki zuten, 41 solairuekin eta 165 m altuerarekin. Triangelu isoszele itxurako planta dauka, alboak kurbatuak ditu, eta altuera handiago hartzen duenean azalera zertxobait txikituz doa. César Pelli, Íñigo Ortiz eta Enrique León arkitektoek diseinatu zuten IDOMeko ingeniaritzarekin.

Hasiera batean, Iberdrola enpresarena zen, alegia; energia elektrikoa ekoizten eta banatzen zuen enpresa bat, eta baita higiezinen sustatzaile batena ere. Iberdrolak eraikin osoa erosi ondoren, haren heren bat Bilbao Bizkaia Kutxa banku erakundeari (gaur Kutxabank) saldu zion, eta era horretan bertan eraikitzea aurreikusita zegoen hotel bat egitea saihestu zuen. Iberdrolak 10 solairu erreserbatu zituen bertan bere bulego nagusiak instalatzeko eta gainontzekoa alokairuko bulegoetarako erabili zuen.

Zabaltzan planta zirkularreko heliportu bat dauka. Bilboko ezaugarrietako bat bilakatu da.



Ortoargazkia 2015. Inguruaren bista orokorra. UTM 30N ETRS89 // X: 504979 m // Y: 4790585 m. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gob. Vasco; geoEuskadi.



Ortoargazkia 2015; geoEuskadi. Dorrea amaituta.



Ortoargazkia 2010; geoEuskadi Dorrea amaitzear.



Ortoargazkia 2009; geoEuskadi. Dorrea eraikitzen.



Ortoargazkia 2007; geoEuskadi Dorrea zimendatze prozesuan.



Ortoargazkia 2002; Lanak hasi baino lehen.